

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresan funtsezko baliabide nagusia langileak izango dira. Langileak izango dira aplikazioa aurrera eramango dutenak, horretarako garrantzitsua izango da langileak eroso egotea gurekin, haiek pazienteekin ondo jokatzeko. Enpatikoak izatea ezinbestekoa da eta baita tratu egokia ematea ere.

Aurreko ataletan azaldu dugun bezala psikologoak ezinbestekoak izango dira gure aplikazioa aurrera eramateko, psikologoak bezeroekin kontaktuan egongo direnak izango dira. Hauek dituzten arazoak entzun eta duten jakintasun profesionalarekin tresnak ematea izango da haien lana. Honekin batera, beraiek izango dira bezeroen fitxa irakurri eta sailkatzen dutenak eta diagnostikoak egingo dutenak.

Bestalde, informatikoen lana oso garrantzitsua izango da, gure aplikazioa mugikorrean erabiliko da, beraz, hau hitz egiterako orduan informatika oso garrantzitsua da. Azken finean, informatikoen lana aplikazioa eguneratua izatea eta funtzionalki eroso eta erabilpen errezekoa izatea izango da, honela jende gehiagok erabiltzen jakingo du, gehienbat helduago diren jendeentzako teknologiarekin berriak baitira. Arazo informatiko baten aurrean beraien lana konpontzea izango da eta bezeroek ipintzen duten informazio eta datuak sailkatuta eta ordenatuta egotea izango da.

Bideodeiak egiteko ordenagailuak erraztuko ditugu psikologoentzako, lanean daudenentzat, ikasten eta jubilatutak daudenentzat.

Gainera, lokal edo gabinete antzerako bat alokatuko dugu, batzarrak egin ahal izateko.